

# EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANAREN BALORAZIOA (2018-2022)

## IRAKASKUNTZA ETA FAMILI TRANSMISIOA

<b><i>Amasa-Villabonako ESEP Planean 2018-2022 epealdirako proposatutako helburuak.</i></b>	<b><i>Udalak helburu horien inguruan egiten duen balorazioa.</i></b>
<b><i>Gurasoen sentsibilizazioan eta jarreran eragin tailerren bidez. Zergatik ez? Tailerra egin urtero 2 urteko gurasoekin</i></b>	<i>Zergatik ez? Tailerrak antolatu ziren 2 urteko hurren gurasoekin, baina ez zuten arrakasta gehiegi izan. Geroztik ez dira egin</i>
<b><i>Haur jaioberrien gurasoei sentsibilizazioa lantzeko euskararen erabilerari buruzko gomendioak bidali</i></b>	<i>Gaur egun haur jaioberrien gurasoei gutuna euskaraz eta beste 9 hizkuntzetako batean bidaltzen zaie, bakoitzaren jatorria kontuan hartuta. Horrekin batera, UEMAREN kotxerako pegatina eta haur-abestien CD bat opari. Euskaldunei Hik Hasi aldizkariaren monografiko bat haur jaioberriei eskainitakoa.</i>
<b><i>Irakaskuntzan martxan dauden programekin aurrera jarraitu: Idazleak ikastetxeetan, Gu ere bertotan, Euskara zine aretoetara, Jolas dinamizazioak...</i></b>	<i>Azken urteetan hezkuntzako programa hauek eskaini izan dira HHko, LHko eta DBHko bi ikastetxeetan.</i>
<b><i>Harrera on moduko egitasmoekin jarraitu</i></b>	<i>Azken urteetan Tolosaldea Garatzenen eskutik, 6-9 urte bitarteko haur migratzaileentzat Harrera on egitasmoa martxan egon da.</i>
<b><i>Hezhiz egitasmoa eta Hedatu proiektua gauzatu DBH osoan, ikasleen sentsibilizazioa eta ahalduntzea sustatuz</i></b>	<i>Hezhiz programari amaiera eman zitzaion, eta horren ordez, EUSLE programa eta UEMAREN HEDATU programa egon dira martxan azken ikasturteetan.</i>
<b><i>Nerabeen arteko hizkera jorratzea: Toka eta nokaren erabilera sustatu...</i></b>	<i>Helburu hau jorratzeko ez da egitasmo berezirik egin.</i>
<b><i>Irakaskuntza inguruko erabakiak hartuko diren guneetan ikastetxeetako guraso elkarten ordezkariak izan</i></b>	<i>Guraso elkarten parte-hartzea sustatzeko ez da saiakera berezirik egin.</i>
<b><i>Irakasleentzat tailerrak antolatu euskararen erabileran eragiteko</i></b>	<i>UEMAk irakasleei zuzendutako tailerrak egin izan ditu herriko</i>

# EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANAREN BALORAZIOA (2018-2022)

## IRAKASKUNTZA ETA FAMILI TRANSMISIOA

	ikastetxeetan.
<b>Migratzaileen seme-alabentzat euskarazko errefortzua bermatu</b>	Azken urteetan Tolosaldea Garatzenen eskutik 6-9 urte bitarteko haurrentzat antolatutako errefortzu programaz gain, azken urtean 9-12 urtekoentzat eta DBHko ikasleentzat Udalak hizkuntza errefortzu saioak antolatu ditu.
<b><i>Harrera on</i> moduko egitasmoekin jarraitu</b>	Azken urteetan Tolosaldea Garatzenen eskutik, 6-9 urte bitarteko haur migratzaileentzat <i>Harrera on</i> egitasmoa martxan egon da.